



2020-2021 ikasturterako programa

2020ko irailaren 27tik 2021eko maiatzaren 30era

---

Sustatzaileak



## **Egitaraua \***

**2020-2021 ikasturterako programa**

**2020ko irailaren 27tik 2021eko maiatzaren 30era**

Lehengo ikasturtea naturaren ezagutza eta aire zabalean lehia gabeko kirolan eta ariketa fisikoan oinarrituko gara, non zaletasunaren hazia eralduko dugun. Emozioak landuko ditugu dibertsiotik, enpatiatik eta batzuetan ere biodibertsitatearen galeraren dramatik.

Lehen eguna on line topaketa, parte hartzaile bakoitzak bere etxetik egingo du *Bihotz berdeak* taldekideekin. Bertan antolatzaileen agurra izango dute (Aranzadi, Kutxa Ekogunea eta Real Sociedad Fundazioa) eta dinamizataile nagusia zein taldekide guztiak elkar ezagutuko dira. Programa guztiaren azalpen labur bat jasoko dute:

- Nolakoak dira ezagutuko ditugun ekosistemak?
- Nola prestatuko dugu naturalistaren motxila (landa gidak, mapak, sokak, prismatikoak, lupak, laginketarako tresnak...)
- Zer eduki beharko dugu kontuan? (taldearen funtzionamendua, naturan ibiltzeko legedia, ...)

Denon artean erabakiko da komunikazio erraminta nagusia eta lehen irteerarako deialdia egingo zaie.

\*Behin behineko egitaraua. Behin-betiko egitaraua irailean zabalduko dugu.

## **Kanpo lana edo irteerak**

Saio guztiek 20-30 minutuko sarrera izango dute non alderdi teorikoa eta saioa ondo jorrazeko beharko dituzten erramintak emango zaizkien eta hausnarketa labur bat egingo den:

- Non gaude, zer dugu inguruan, non gelditzen da gure etxea?
- Zergatik gaude hemen?
- Orientazio azkarra. Zertan oinarritu gara?
- Zer ikusten dugu inguruan? Zer nolako natura dugu? Zein ekosistema da?
- Zer egiteko aukera daukagu? Gustatzen zaizue? Zuen kabuz etorriko zinateke?
- Ariketa batzuk egingo ditugu prismatikoak azkar eta behar den bezala erabiltzen trebatzeko.

## 1. saioa

2020ko irailaren 27, igandea

**BOTANIKA: HAMAR ZUHAITZ, HAMAIIKA LAGUN**

Aranzadiko Botanika Saila. **Mikel ETXEBERRIA**

Tokia: **Aiako Harrian**



Uneoro ditugu inguruan landareak, eta askotan oharkabeen pasatzen dira. Landareak hautemateko zailtasun hori landareekiko itsutasuna (*Plant blindness*) bezala definitua izan da. Horregatik, landareak ikusi, eta, ezagutzeko ibilbide botanikoa egingo da Aiako Harrian, eta horrez gain, hainbat jolas ere egingo da.

- Basoko landareak ezagutu
- Herbarioa egin
- Hazi-hazi jolasa

## 2. saioa

2020ko urriaren 25, igandea

**MIKOLOGIA**

Aranzadiko Mikologia Saila. **Unai FERNÁNDEZ**

Tokia: **Aiako Harrian**

Onddoen mundua zer den eta ekosistemetan duten garrantzia zein den aztertuko dugu. Hainbat bizileku desberdin ezagutuko ditugu eta nola jokatzeko duten ikasi, beraien habitat desberdinak ezagutzeko. Euskal herriko ekosistema desberdinetan murgilduko gara biodibertsitate fungikoa ezagutzeko. Beste izaki bizidunak bezalaxe onddo batzuk desagertzeko zorian aurkitzen direla ikusiko dugu eta ze kalte sortuko luketen, hauek galduko balira. Beste alde batetik onddoak gu bezalaxe izaki bizidunak direla erakutsiko diegu eta hauek sukaldatzekotan ze espezie diren jangarriak, toxikoak edo hilgarriak ikasi eta nola bildu behar diren erakutsi. Azkenik labur guk egiten dugun lana erakutsiko diegu.

- Onddoen mundua ezagutuko dugu (zer den onddoa, ...).
- Bizilekuak bisitatuko ditugu eta espezieak nola identifikatzen diren ikasiko dugu.
- Mikroskopioz eta lupaz ariketa praktikoa egingo dugu, onddoen egitura, zelulak eta esporak ikusiko ditugu.

### 3. saioa

2020ko azaroaren 29, igandea

#### ITSAS LABARRA

Kutxa Ekoguneko Programa eta Edukien Saila. **Kakun ORBEGOZO**

Tokia: **Euskal Kostaldeko Geoparkean**

Itsas labarra, itsasoa eta lur lehorraren elkartze gunea da, bi inguru erabat ezberdinak topatzen diren lerroa, eta biodibertsitatez indize oso handiko lekuak dira. Zumaiaiko Flysch-ean zehar txango bat egingo dugu eta geologiaz gozatzeaz gain, bertan topa ditzakegun bizidun ezberdinak aztertu eta sailkatuko ditugu. Bizidun oso bereziak ditugu eremu hauetan, egun osoan marearen eraginpean daudenez, bizirauteko estrategia anitzak garatu dituzte. Eta eguna amaitzeko, Algorri interpretazioa zentroa ezagutuko dugu.

- Itsas labarreko bizidunak
- Geologia (Deba-Zumaia biotopo babestua, Flyscha eta itsas labarrak, kalak,..)
- Zumaiaiko Algorri Interpretazio Zentroa



### 4. saioa

2020ko abenduaren 27, igandea

#### ENTOMOLOGIA: INTSEKTUAK, GURE INGURUKO MUNDU TXIKIA

Kutxa Ekoguneko Programa eta Edukien Saila. **Jon Ander GALARRAGA**

Tokia: **Oriamendin**

Gure oinen azpian, sekula irudikatu ezin dugun mundu txiki eta interesgarri bat dugu. Intsektu eta beste ornogabeek, gure planetaren bazter guztietara egokitu dira eta non nahi aurkitu ditzakegu. Basoan zeharreko ibilbide honetan, lehenik intsektu eta beste ornogabeak bereizten ikasiko dugu, ostean intsektuen talde nagusiak identifikatzeko gakoak ezagutuko ditugu. Behin jakintza hau buruan dugula eta giden laguntzaz, ornogabe ezberdinak ehizatzekeo tranpak prestatuko ditugu eta hauek kontserbatzeko modurik egokienak ikasi. Azkenik intsektu eta ornogabeen bilaketa aktibo bat egingo dugu ingurune ezberdinetan: belardian, lurzoruan, egur hilean...

- Intsektua, zer da?
- Intsektuak non eta nola bilatu.
- Egur hila

## 5. saioa

2021eko urtarrilaren 31, igandea

### **ETNOGRAFIA: BASERRIKO TRESNAK EZAGUTUZ**

Aranzadiko Etnografia Saila. **Maite ERRARTE eta Suberri MATELO**

Tokia: **Bidebietan, Donostia**

Aranzadiren Bidebietako Etnografia Tailerrean ehundaka baserriko tresneria tradizionala jasotzen da. Aranzadik tresneria guzti hori dokumentatu eta txukuntzen du, gure iragana eta arbasoen memoria galdu ez dadin. Proposatzen dena: gazteekin egiteko errestaurazio tailer bat, taldeka edo banaka baserriko tresnak emango zaizkie, haiek zertarako balio zuten asmatu beharko dute, baserriarekin eta naturarekin zelako lotura zuten identifikatu eta zein lanbideri dagozkien asmatu. Ondoren tresnak garbitu, argizaria eman eta etiketa jarriko zaie, izena eta jatorriarekin. Ondoren argazki atera eta fitxa bat bete beharko dute: ze materialez eginak dauden identifikatu, etab. Azkenik tresnaren aurkezpen bat egin beharko dute guztien aurrean.

## 6. saioa

2021eko otsailaren 28, igandea

### **ORIENTAZIOA: BASOAN GALDU GABE**

Gipuzkoako Orientazio Taldea. **Kimetz GALARRAGA**

Tokia: **Miramongo basoan**



Orientazioa, Europako hainbat herrialdeetan kirol gisa oso zabalduta egon arren ia ezezaguna da Euskal Herrian. Modalitate ezberdinak ditu, zailtasunaren arabera, taldeka, bakarka... Ingurune naturalean mugitzeko orientazioa ezinbestekoa da, eta saio honetan, mapa, iparrorratza eta gogoia erabiliz, orientazio-teknikak ikasi eta erabiliko ditugu.

## 7. saioa

2021eko martxoaren 28, igandea

### **ORNITOLOGIA: MOKOAK ETA LUMAK**

Aranzadiko Ornitologia Saila. **Maite LASO**

Tokia: **Cristina Enea eta Aiete parkeetan**

Urte osoan zehar hegazti espezie askok erabiltzen dituzte hiriko parkeak. Edozein garaitan erraz behatu daitezke hainbat hegazti espezie. Donostian, Hirilife proiektuaren barruan, bi ibilbide ornitologiko prestatu dira. Horietako bat, hiriko parkeetako Ibilbide da. Ibilbide hau jarraituz gertuen dauzkagun hegazti espezieak eta beraien ezaugarriak ikasiko ditugu. Gainera, hiri-biodibertsitateak duen garrantzia ikusiko dugu. Hirilife hiri-biodibertsitateari buruzko ikerketa, kontserbazioa, dibulgazioa eta hezkuntza uztartzen dituen proiektua da.

- Hiriko parkeetako hegazti espezieak ezagutu.
- Ibilbide ornitologiko gidatua egin.
- Hirilife proiektua ezagutu hiriko-biodibertsitatearen garrantzia ikusiz.

## 8. saioa

2021eko apirilaren 25, igandea

### **HERPETOLOGIA: HERPETOLOGOAK PUTZUZ PUTZU**

Aranzadiko Herpetologia Saila. **Ion GARIN**

Tokia: **Aiako Harrian**



Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren datu eguneratuak aintzat hartuz, mundu mailan ornodun talde mehatxatuena anfibioena da, espezieen heren bat tarte honetan sailkatua egoteaz gain egoera are larriagoa dela dirudi, izan ere espezieen %20az ez baitago informaziorik. Anfibioen ostean, talde mehatxatuenak ugaztunak eta narrastiak dira. Talde horietan ere datu adierazgarri bat ageri da, izan ere bi talde horietako espezieen %15az ez baitago informazio nahikorik.

Tamalez herpetoen, hau da anfibio eta narrastien, inguruko ezagutza herritarren artean oso mugatua da, eta bizidun batzuk, izan apo, arrabio, musker edota sugeak fama txarraren biktima, jazarpen zuzena pairatzen dute.

Gauzak horrela, Bihotz berdeak ekimenaren baitan, irteera gidatu bat egitea aurreikusten da, Aiako Harria Parke Naturalera. Aranzadi Zientzia Elkarteak ingurune honetan egindako ikerketa eta kudeaketa ekintzak erakustez gain, bertako herpetofauna ezagutzeko parada izango dute bertaratzen direnek.

- Aranzadik egindako kudeaketa lanak ezagutu
- Herpetofauna ezagutu

## 9. saioa

2021eko maiatzaren 30, igandea

### **AGURRA ETA LASTER ARTE!**

Kutxa Ekoguneko Programa eta Edukien Saila

Tokia: **Artikutzan**

Azken saio honetan, kirola egingo dugu, naturan zehar oztopoz betetako lasterketa bat burutuz... eta indarrak berreskuratzeko, naturaren zaporeak ezagutuko ditugu eta basoan topatzen ditugun elikagai ezberdinekin sukaldatuko egingo dugu. Arratsaldean Bihotz berdeen lehen belaunaldiaren diploma banaketa egingo da eta gaua iristean saguzarrei eta gaueko intsektuei bisita bat eginez, agur esango diogu egin dugun ibilaldi eder honi.

- Kirola naturan: Propiorezepzioa, maldak, lasterketa, zirkuituak
- Basoan sukaldatzen
- Gauez egin daitezkeen ekintzak: saguzar trekkinga, gautxoriak, entomologia gautarra: sitsak, ipurtargiak...
- Amaiera: Naturzaleen kongresua eta Diploma banaketa



## **Taldearen dinamizazioa eta barne-komunikazioa**

Naturara hurbiltzeko irteerek egitarauaren muina izango diren arren, hilabetero eta irteeren artean bestelako ekintzak ere prestatuko dira, hala nola, bideoen bidalketa eta komentarioak, tutorial motzak (pilula moduak), albisteak (naturarekin zer ikusiak dauzkatena eta gertukoak), eta abar. Hasieran dinamizatzaile nagusiak bideratuko ditu (lantaldeko kideen laguntzaz) baina gero partaideei eskatuko zaie inplikazioa.

Talde baten kide izatearen sentimendua izan dezaten uneak eta aukerak bilatu beharko dira komunikaziorako erramintak jarri eta egingo dituzten ekintzen singularitatea bermatuz. Irakurtzeko liburuak proposatuko zaizkie (*Mi familia y otros animales*, Gerald Durrell bezalakoak).